

ZENARRUTZA ZIORTZA (III) KONPOSTELA'RA BIDEAN

ERROMESEN JORABIDEAK

Zortzigarren gizaldi-inguruan asita, garrantzi aundiko bidea izan zan Europa osoan Santiago'ren bidea. Erdi-aro osoan eragin aundia sortu eban bide orrek, erlejiño-giroan, salerosketan, erti-lenetan, kulturaren eta abar.

Bizkaia'n eta Euskalerrri osoan be bere ikutua izan eban bide onek. Aiztu-eziñak doguz Aymerik Pikaud gotzain ibiltariak bere liburutxuan emoten dauzan barri iraingarriak.

Konpostela'rako bide onetan Erti-lan ederrak daukaguz, erromaniku tankerakoak. Gogoratu, estera-ko Palentzia'n dan Fromista'ko Martin Deunaren eleizea, benetan erromaniku ederra.

Konpostela'ra joiazan erromesak batzutan eleizak eginda aurkitzen ebezan eta eraspén aundiz urreratzen ziran olako monastegi edo etxe santuetara naiz baseleizetara. Beste batzutan eurak egiten ebezan etxeak.

Dana dala, monastegi edo eleiz ospetsu onein inguruan erromesentzat gaiso-etxeak eta ostatua eskintzen ziran.

Giro orretan sartuta aurkitzendogu erdi-aroan Ziortza'ko Monastegia edo lekaide-etxea. Aztertu daigun pizka bat arazoa.

BIDEA

Euskalerrrian zear joian Donejakue'ren bidea Ziortza'tik urrin ez dala igaroten zan. Kantauri itxasoaren ertzeko bidea da.

Bide au, antza dagoanez, lenagokoa zan erromatarren kaltzada aregaz batera joian, eta, batez be Santiago bide biurtu zanetik, salerosketarako bide garrantzitsua zan.

Edestilariak diñoenez, santio-bide au Artibai errekearen ingurutatik sartzen zan Bizkai'ra, gero Markiña'tik Bolibar'era eta emendik Ziortza'ra eltzeko. Bidelariak emen laguntza aurkitzen eben eta bideak Gerrikaiz, Albiz, Mendata, Marmiz, Ajangiz, Gernika'ra ta Bermeo'ra jarraitzen eban.

Auxe zan erdiaro zarrean Bizkai'ko biderik ezagunena sortaldetik sartalderantz eta auxe izan zan zin egiteko Bizkai'ko Jaunak artzen eben bidea, Bilbao'tik Gernika ta Bermeo ra etorteko.



Erdi-Aro'ko bide onen zati bat gaur be ikusi daiteke beko bidean asi eta monastegira igoteko.

ERROMESAK

Ziortza Santio-Bidean izan eban garrantzia gogoratzen dauskuen jakingarri batzuk be aurkitu al izan doguz edestian. Argien arazoa aurkeztzen dabenak, Eleiza onen inguruan ostatua edo gaiso-etxea egiteko ziran agiriak doguz. Txiroak artzeko dala diño agiriak, esatera-ko 1.386'ko I Juan'en agiriak edo VI Klemente Aita Santuarenak. Au 1527'koa da eta onelan diño: «Toki aretara txiro asko eta beste norki errukarri asko batzen ziran». Baiña oraintsu ikusi al izan doguz beste agiri batzuk lekaide-etxe-ko agiritegian eta oneitan bein eta barriro agertzen da ibiltari edo «peregrino»

berbea eta oneik dirala ostatu edo gaiso-etxe onen onurak artzen dabezenak ziurtatzen dau. Berba oneri buruz ara zer diñoan Etxegarai'tar Karmelo'k argitasun aundiz inguruan beste erromes-lekurik ez egoala jakiniñ: «Zelako erromesentzat izan zeitekean gaiso-etxe edo ostatu ori, Donejakue'ra joiazan bidelariantzat izan ezik?».

Beste lekuko bat daukagu oraindiño Ziortza'n, Donejakue-bidean izan eban garrantzia agertzeko: Ziortzan bertan ormetan-eta agertzen diran apaingarriak. Olakoak agertzen dira Santio-bideko eleizetan, esatera-ko oskolak edo kontxak, makillak eta abar. Olakoak arkuen bitartetan betegarri lez agertzen dira, esatera-ko ibiltoki itxi edo klaustroan, Irusta abataren ikurdian, abat onen illobian dagoan taldeko ibiltariaren irudian, atean dan Donejakue'ren zaldidun irudian eta ingurutetan eta 1.721n. urtean Donejakue'ri altare bat eskitzen jakon lekuan.

EUROPAGAZ ALKARTUTA

Gaur Europa'gaz alkartzea eguneko gauzea ta arazoa da. Orra or ba bide orretan be Ziortza'k nondik dauan bere zerikusia. Donejakue'ren bideak Europa alkartu egin eban eta bide orrek gure denporetarako be ibilli bear doguzan bideak dira. Bide orretan daukagu Ziortza.

OLAZAR'tar Martin'ek